



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2003ko urtarrilaren 28a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:20 **AMAIERA-ORDUA:** 19:38

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Eneko Dorronsoro Portularrume, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Andoni Sarasua Oriden eta Itziar Olariaga Larrañaga herritik kanpo daudelako.

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2002ko abenduaren 4an egindako ezohiko bilkurako akta eta 2002ko abenduaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udaleko ezkontzarik gabeko elkartze zibilen Udal Erregistroa erregulatzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko lur ez urbanizagarriaren eremuan lurra partzelatzeko eta eraikitzeko baimenak bertan behera uzteko erabakia luzatzea.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

- 4.- Onartzea, egoki bada, hainbat konpentsazio urbanistikorako batzorde desegitea.
- 5.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 14ko bilkuran hartutako erabakiaren berri ematea eta dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada. Erabakia Orioko hondartzako 3. interbentzio urbanistikorako eremuaren plan partziala aldatzeko espedientearen behin betiko onarpenari buruzkoa da.
- 6.- Onartzea, egoki bada, arrazakeriaren kontrako estatu mailako plan baten aldeko aldarrikapen instituzionala.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2002KO ABENDUAREN 4AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTA ETA 2002KO ABENDUAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatzarrak 2002ko abenduaren 4an egindako ezohiko bilkurako akta eta 2002ko abenduaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO EZKONTZARIK GABEKO ELKARTZE ZIBILEN UDAL ERREGISTROA ERREGULATZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Ikusita Eusko Jaurlaritzako Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendariak Udalari bidalitako idatzia. Idatziak adierazten du Udalbatzarrak onartutako ezkontzarik gabeko elkartze zibilen udal erregistroa erregulatzen duen udal ordenantzaren 6. artikulua ez zaiola zuzenbideari lotzen, ezkonduko bikoteak eta ezkondu gabekoak parekatu nahi baititu, orokorrean eta ondorio juridiko guztiekin. Artikulu hori dela eta, bestalde, Udalak bereak ez diren aginpideak bere gain hartzen ditu, eta, gainera, testua nahasgarria da (Udalak ezin du ezkonduko bikoteentzat aurreikusita dagoen lege araubidea ezkongabeko bikoteen kasuan



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

erabili). Artikulu hori, azkenik, segurtasun juridikoaren printzipioaren kontra doa (konstituzioaren 9.3 artikulua).

Aurreko idatzia kontuan hartuta, beraz, Udalbatzarrari proposatzen zaio 6. artikulua testua aldatzea eta, horren ordez, honakoa onartzea (hitzez hitz jasota):

Orioko Udalari dagokion konpetentzia arloan, ezkondu gabeko bikoteen udal erregistroan inskribatuta egonez gero, ezkontzaz elkarrekin bizi direnek ezkontuta daudenen kontsiderazio administratibo berbera izango dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENEA EMATEA Orioko Udaleko ezkontzarik gabeko elkartzetza zibilen Udal Erregistroa erregulatzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari, goian adierazita dagoen bezala.

2.- JENDAURREAN JARTZEA aldaketa hori 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita, interesdunek edozein erreklamazio aurkezteko.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipatutako udal ordenantzaren aldaketa behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO LUR EZ URBANIZAGARRIAREN EREMUAN LURRA PARTZELATZEKO ETA ERAIKITZEKO BAIMENAK BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA LUZATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko lur ez urbanizagarriaren eremuan lurra partzelatzeko eta eraikitze baimenak bertan behera uzteko erabakia urte betez luzatzea.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HAINBAT KONPENTSAZIO URBANISTIKORAKO BATZORDE DESEGITEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA honako konpentsazio urbanistikorako batzordeak desegitea: Toki-Alai, Bikamiota, Erriberak eta Aramendi.

5.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO DIPUTATU KONTSEILUAK 2003KO URTARRILAREN 14KO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA ETA DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA. ERABAKIA ORIOKO HONDARTZAKO 3. INTERBENTZIO URBANISTIKORAKO EREMUAREN PLAN PARTZIALA ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN BEHIN BETIKO ONARPENARI BURUZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 14ko bilkuran hartutako erabakiak honela dio, hitzez hitz:

"Orioko Udalak, tramitatu ondoren, "3. Hirigintzako Esku Hartzeko Alorreko Planaren Aldaketa.. aurkeztu du, Foru Aldundiak behin betiko onar dezan.

Udalak sustatutako espedientearen helburua da berriro antolatzea area hori, kontuan hartuta alboko lur eremuak, zehazki, "Orioko hondartza" sistema orokorra; Kirol Portua" sistema orokorra, udal kanpina eta A-8 autobidea. Horretarako, 1998ko azaroaren 17an behin betiko onartutako Alorreko Plana aldatuko da, bereziki, auzoko bide sistema eta antolaketa xehatua, eta, halaber, Udalaren futbol zelaia kenduko da.

Alorreko Planean plangintza orokorrak jasotako parametroak errespetatzen dira aurreikusitako 307 etxebizitza antolatzerakoan (97 etxebizitza 3.1 Exekuzio Unitatean eta 210, berriz, 3.2 Exekuzio Unitatean). Horrela, 31.045 m²(t)-ko solairu estalgarria baimentzen da; horietatik 10.314 m²(t) 3.1 Unitatean eraikiko dira eta gainerako 20.731 m²(t) 3.2 Unitatean, 3.600 m²(t) erantsiko zaizkiolarik azken unitate horri, babes zorgunearen barruan eraikiko diren dotazioetarako.

Bide sistema nabarmenki aldatzen da, izan ere, hondartzaren aurrealderako sarbidea antolatzen zuen zirkulazio eraztunaren orde, sarrera eta irteerako bide bakarra egitea proposatzen da orain eta baita bide hori amaituko duen errotonda bat ere. Hondartzaren aurrealderako sarbidea, lehen 3.1. unitateko eraikinen atzealdean zegoena, eraikin horien eta itsasertzeko pasealekuaren artean kokatuko da orain. Gainera, "Kirol Portua" Sistema Orokorra- 2. Hirigintzako Esku Hartzeko Areatik doan bidearen zati bat kentzen da. Bide hori



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

antolatzen duen Plan Berezia administrazioaren isiltasunez onartu zen behin-betikoz, Orioko Udalaren ustez, 1998ko apirilaren 29an (ikus 1998ko maiatzaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 29 zenbakian).

Eta Planean lau etapa zehazten dira, eta hiritartze eremuak mugatzen dira etapa bakoitzerako, exekuzio epeekin batera.

Udal fasean, 2002ko uztailaren 16ko Udal Batzarrak hasierako onarpena eman zion planari, eta jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik jaso. Halaber, Ingurumen Ministerioko Kosta Zuzendaritza Nagusiaren informean zenbait adierazpen agertzen ziren, behin-behinekoz onartu aurretik zuzendu zirenak, hain zuzen ere.

Gero, beste dokumentu bat prestatu eta beharrezko informeak egin ondoren, 2002ko irailaren 27ko Udal Batzarrak behin-behinekoz onartu zuen tramitatutako plana, eta espedientea behin betiko onarpenerako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen.

Kosta Zuzendaritza Nagusiak aldeko iritzia eman dio dokumentuari, behar bezala jasota baitaude mugaketa lerroa eta babes zorgunearena. Halaber, zorgune horren erabileretarako Kosta Legeak ezarritakoa bete behar dela adierazi du.

Bestalde, Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak adierazi duenez partzelarioa ez da zuzena, izan ere, autobidearen ezpondarekin bat datorren 2.23 lurzatia ez baitago herri jabariko gunearen barruan, eta gauza bera gertatzen da A-8 autobideko zubibidearen proiektio bertikalarekin bat datorren 2.18 lurzatian eta bere herri jabarigunean. Horregatik, plangintzan ez da onartzen aipatu zubibidearen azpian autobusetarako aparkalekuak egiteko aurreikuspenik, errepidearen zorgunearen barruan baitago. Beraz, Udalak edo eskuduntza duen erakundeak erabilera horretarako baimena eskatu beharko dio foru departamentuari, eta tramitazio horren barruan ezarriko dira baimena lortzeko baldintzak eta ezaugarriak.

Foru Aldundiko hirigintzako zerbitzu teknikoek dokumentuaren edukia aztertu ondoren, adierazi dute helburuekin bat datorrela eta, ondorioz, behin betiko onar daitekeela. Hala ere, bidezkotzat jotzen da puntu batzuk zuzentzea dokumentua behin betiko onartu ondoren, zehazki, honako arlo hauetan: errepideak, alboko eremuekiko koordinazioa, Xehetasun Azterlanak, eta hirigintza eginbeharrak betetzeko epeak.

Lehendabizi, ez da bete 1997ko ekainaren 3an Diputatuen Kontseiluak onartutako "Orioko hondartza areari dagokion Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa" espedientearen behin betiko onarpen erabakian ezarritako baldintzetako bat. Baldintza horrek ezartzen zuen arabera, alorraren aurreikuspenak gainerako lurraldeak dituenekin epe luzeagora bat egiteko azterketa egin behar zen alorraren antolaketa xehatuan eta, gainera,



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

ezinbestekoa zen "Orioko Kirol Portua-Sistema Orokorra" 2. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Plan Bereziarekin "Orioko Hondartza-Sistema Orokorra" 1. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Proiektuarekin koordinatzea. Onartutako proposamenean "antolaketa orokorra" izeneko plano aurreratu da eta, bertan, 3. Arearako proposatutako antolaketa alboko 1. eta 2. areekin lotzen da, gainerako lurraldeari buruzko inolako azterketarik egin gabe. Bestalde, plano horretan ikusten denaren arabera, "Kirol Portua" 2. Arearean antolaketa ez dator bat indarrean dagoenarekin, tramitatutako dokumentuaren 1.7 planoan jasotakoarekin, hain zuzen ere. Beraz, beharrezkotzat jotzen da "Kirol Portua" 2. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Plan Bereziaren aldaketa tramitatzea eta onartzea.

Bestalde, Xehetasun Azterlanetan jasotzen diren helburuak ez datoz bat indarrean dagoen hirigintza legeriak ezarritako helburuekin. Azterlanak jasotako helburuak honako hauek dira: "herri jabarigunean" garajera sartzeko arrapalak irekitzea, eta "gizarte ekipamenduko lurzatiak probetxamendu eraikigarria" eta "erabilera gehigarrietarako irabazizko erabileretako lurzati eraikigarrien sestra azpiko probetxamendua" gehitzeko aukera izatea.

Azkenik, plangintzak ez du eperik zehaztén lagapen, hiritartze eta ekitatezko banaketa betebeharrak betetzeko, eta, beraz, hirigintzako legeriak ezarritakoak aplikatu beharko dira.

Ondorioz, Diputatuen Kontseiluak, aplikagarri den legeria ikusirik, Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren

ERABAKI DU

1.- Behin betiko onartzea Orioko "Hondartza-3. Hirigintzako Esku Hartze Alorreko Planaren Aldaketa".

Behin betiko onarpenak eragina izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Partzelarioa zuzendu behar da, 2.23 eta 2.18 lurzatiak Foru Aldundiarenak baitira. Horrela, A-8 autobideko zubibidearen azpian autobusetarako aparkalekuak egiteko baimena eskatu beharko dio Udalak edo eskuduntza duen erakundeak foru departamentuari, errepidearen zorgunearen barruan dagoelako. Beraz, tramitazio horren barruan ezarriko dira baimena lortzeko baldintzak eta ezaugarriak.

2. Alorraren antolaketa xehatuaren proposamena eta gainerako lurralderako dauden aurreikuspenak bat egiteko azterketa egin behar da.

3. "Kirol -Portua" 2. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Plan Bereziaren aldaketa idatzi eta tramitatu behar da, bide proposamen berriari egokitzeko.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

4. Xehetasun Azterlanen edukia indarrean dagoen hirigintza legerian ezarritako xedapenetara egokituko da nolana ere.

5. Jardun unitateak garatzeko, 1998ko martxoaren 6ko 5198 Legeak, lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzkoak, 8. artikuluan ezarritako epeak aplikatuko dira, hain zuzen ere, hirigintza eginkizunak betetzeko ezarritakoak.

2.- Udal Batzarrak onartutako dokumentazio zuzendua, aipatutako alderdiak zuzendu eta erabaki honetan adierazitako baldintzak jasotzen dituena, aurkeztu behar du Orioko Udalak hilabeteko epean.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu edo, kasua bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintzako batzorde informatzaileak 2003ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

1.- Partzelarioa **EZ ZUZENTZEA**, Udalak esku artean dauzkan datuen arabera, 2.23 eta 2.18 lurzatiak Udalarenak baitira. Bestalde, A-8 autobideko zubiaren azpian autobusetarako aparkalekuak egiteko baimena eskatuko du Udalak edo eskuduntza duen erakundeak Foru Departamentuari, errepidearen sorgunearen barruan dagoelako. Beraz, tramitazio horren barruan ezarriko dira baimena lortzeko baldintzak eta ezaugarriak.

2.- Alorraren antolaketa xehatuaren proposamena eta gainerako lurralderako dauden aurreikuspenak bat egiteko azterketa egingo da, arau subsidiarioak berrikusteko eta egokitzeko espedientearen barruan.

3.- 'Kiol portua 2. Hirigintzako Esku Hartze arearen' plan bereziaren aldaketa idatzi eta tramitatuko da, bide proposamen berriari egokitzeko.

4.- Xehetasuneko estudioaren edukia indarrean dagoen hirigintzako legerian ezarritako xedapenetara egokituko da, nolana ere.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

5.- Jardun unitateak garatzeko, 1998ko martxoaren 6ko 5/98 Legeak, Lurraren Araubide eta Hiri Antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzkoak, 8. artikuluan ezarritako epeak aplikatuko dira, hain zuzen ere, hirigintza eginkizunak betetzeko ezarritakoak.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ARRAZAKERIAREN KONTRAKO ESTATU MAILAKO PLAN BATEN ALDEKO ALDARRIKAPEN INSTITUZIONALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Donostiako Amnesty International erakundeak bidalitako idatziak honela dio, hitzez hitz:

MODELO DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE UN PLAN ESTATAL CONTRA EL RACISMO

CONSIDERANDO que el gobierno español se ha comprometido en la Conferencia Mundial contra el Racismo, la Discriminación Racial, la Xenofobia y las Formas Conexas de Intolerancia, celebrada en Durban (Sudáfrica) los días 31 de agosto a 8 de septiembre del 2001, a adoptar medidas de prevención, educación y protección destinadas a erradicar el racismo, la discriminación racial, la xenofobia y las formas conexas de intolerancia en los ámbitos estatal, regional e internacional.

CONSIDERANDO que el Estado español tiene que trasponer la Directiva 43/2000 de la Unión Europea trata sobre "la aplicación del principio de igualdad de trato de las personas "independientemente de su origen racial o étnico" antes de julio del 2003.

TENIENDO EN CUENTA que desde hace tiempo, pero más ahora, diversas organizaciones (Amnistía Internacional, la Asociación contra la Tortura, el Defensor del Pueblo, Human Rights Watch, SOS Racismo) así como organismos internacionales (Comité para la Eliminación de la Discriminación Racial, Comité contra la Tortura, Comité para la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer o el Comité de los Derechos del niño) han denunciado el aumento de casos de tortura y malos tratos a inmigrantes y miembros de minorías étnicas, como los gitanos, por parte de agentes del estado y particulares.

TENIENDO EN CUENTA las medidas de la UE adoptadas en materia de lucha contra el racismo.

CON EL OBJETIVO de contribuir a luchar contra el racismo, la discriminación racial, la xenofobia y el aumento de malos tratos a inmigrantes y gitanos...



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

EL AYUNTAMIENTO DE _____ INSTA al gobierno español a diseñar, aprobar y poner en marcha UN PLAN ESTATAL CONTRA EL RACISMO que contenga, entre otras:

A) Medidas de carácter político, social, de índole educativo o de sensibilización, en relación con la comunicación y medios de difusión para luchar contra actos y actitudes que engendren conductas xenófobas y manifestaciones de rechazo generalizado de los inmigrantes, para eliminar el racismo, la discriminación racial, la xenofobia y las formas conexas de intolerancia en el lugar de trabajo, en su acceso a la sanidad, educación, prestaciones sociales, a la vivienda, a locales de entretenimiento, etc.

B) Medidas específicas para prevenir la tortura y malos tratos por agentes del estado, así como manifestaciones conexas de racismo en las fuerzas de seguridad y la administración de justicia cuando el origen étnico haya sido el factor determinante para la detención de esa persona.

En el proceso de elaboración del plan y la estrategia deben participar, junto a las autoridades pertinentes, representantes de grupos afectados, ONG y expertos que trabajen sobre la cuestión del racismo y la administración de justicia, procurando incluir en ellos metas medibles y mecanismos de vigilancia. Se debe además de dotar de los recursos humanos y materiales necesarios para la correcta y adecuada puesta en marcha del plan y para asegurar su efectividad en la lucha contra el racismo.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztatidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

ONARTZEA arrazakeriaren kontrako estatu mailako plan baten aldeko aldarrikapen instituzionala, goian jasota dagoen bezala.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia alde z aurretik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

8.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, OSTALARITZAKO GREMIOKO ESTABLEZIMENDUAK ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, ikusita informazio publikoko epean ez dela inolako erreklamaziorik aurkeztu, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (8 baiezko boto):

BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA ostalaritzako gremioko establezimenduak erregulatzen dituen udal ordenantzaren aldaketari.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,